



Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak bultzatutako ekintzak



GARAPEN IRAUNKORRERAKO 2030 AENDA



Pertsonak

Pobrezia eta gosea desagerrarazi nahi ditugu, haien forma eta dimentsio guztietan, eta bermatu nahi dugu gizaki guztiek euren potentziala garatu dezaketela, duintasunez eta berdintasunez, ingurumen osasungarrian.



Planeta

Planeta narriaduraren kontra babestu nahi dugu, eta horretarako beharrezkoak dira kontsumo eta ekoizpen jasangarriak, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta klima-aldaketari aurre egiteko premiazko neurriak, oraingo eta etorkizuneko belaunaldien beharrak ase ahal izateko.



Oparotasuna

Gizaki guztiek bizitza oparo eta osoaz gozatzeko bidea izan behar dute; hori bermatuta izateaz gain, aukera izan behar dute euren aurrerabide ekonomiko, sozial eta teknologikoa naturarekin uztartzeko, modu harmoniatsuan.



Bakea

Beldur eta indarkeriarik gabe bizi daitezkeen gizarte baketsu, bidezko eta inklusiboen alde egin behar dugu.



Lankidetza

Agenda inplementatzeko, beharrezkoak diren baliabideak mobilizatu behar dira, Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza bizkortu baten bitartez, herrialde, alderdi interesatu eta pertsona guztien lankidetzarekin; horren oinarrian, elkartasun-espíritu handiagoa egon behar da, mundu osoan, eta garrantzi berezia eman behar zaie pobrezia eta kalteberatasuna gehien pairatzen dituztenen beharrei.

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK



1. POBREZIA DESAGERRARAZTEA



Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

1. Pobrezia egoerei erantzutea, eta laguntza sozialen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzea erraztuta eta gizarte bazterketa egoerak kroniko bihurtzea eragotzita
2. Laguntza sozialen erabilera egokia bermatzea, premia handiena duten pertsonengana iritsi daitezen, erakundeen arteko lankidetzeta eta datuen interkonexioa bultzatuta.
3. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak bermatzea, baita pobrezia energetikoarena ere
4. Etxerik ez duten pertsonak artatzea
5. Onespenez zabaleko itun soziala bultzatzea finantzaketa sendotzeko, eta Zerbitzu Sozialen Euskal Sistemaren iraunkortasuna bermatzea
6. Enplegua lortzen zaila duten pertsonen arreta optimizatzea zerbitzu sozialen eta enplegu euskal zerbitzuaren arteko koordinazioaren eta lankidetzaren bitartez

Gobernu Programaren Konpromisoa

126
126
130 y 131
132
129
133

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Landa Garapenerako Osoa programa 2015-2020
- Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integrala



1. POBREZIA DESAGERRARAZTEA



Sailburuordetzak 1. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Landa ingurunean gizarte eta lan alorretako laguntzetarako neurriak bultzatzea
- Sasoikako Langileen Arretarako Plan Integrala koordinatzea, non Eusko Jaurlaritzako Sailek eta Aldundiek parte hartzen duten, beste erakunde profesional batzuekin batera, hala nola UAGA, Caritas, etab. Plan horrek lan baldintza egokiak (lansariak eta ordutegiak) bermatzen ditu langileentzat (migratzaileak, emakumeak, etab)
- Elikagaien bankuei lagundu



2. GOSERIK EZ



Gobernu Programaren Konpromisoa

7. Nekazaritza sektorearen lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzea
8. Landa eta itsasertzeko guneak azpiegitura eta zerbitzu egokiz hornitzea, hiri inguruneetako enparekoak diren bizi baldintzak bermatzeko eta populazioa mantenduko dela ziurtatzeko
9. Lehen sektorea gaztetzeari, etorkizuneko berme gisa
10. Berrikuntza eta Ikerketa sustatzea nekazaritzaren sektorearen lehiakortasuna hobetzeko
11. Nekazaritza ekologikoa eta bere industria eraldatzailea sustatzea

26

26

26

26

26 eta 27

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Landa Garapenerako Osoa programa 2015-2020
- Gaztenek Plana 2020 Nekazari Gazteentzat
- Elikagaien Segurtasunari buruzko Ikerketaren koordinazio plana
- Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integrala
- Nekazaritza Ekologikoko Plana (FOPE)
- Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2020
- Euskadiko Elikagaien eta Egurraren Balio Kateko Ekintzailatza Estrategia
- Euskadiko Arrantza eta Akuikulturako Plana 2020

Legegintzako ekimena

- Landa Garapenera buruzko 10/1988 Legea, apirilaren 8koa, aldatzeko lege proiektua





Sailburuordetzak 2. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Laborantza iraunkorrerako jardunbideak eta baliabide naturalen kudeaketa efizientea sustatzea, LGPren barruan laguntza neurriak hartuz eta Zentro Teknologikoen bitartez eta hainbat erakunderen partaidetzarekin ikerketak eginez
- Elikagaien balio katean janak alferrik galtzea murrizteko ekintzak abian jartzea. Hainbat administrazio eta eragileren partaidetzarekin mahai bat sortzea, Elikaren bitartez
- Sentsibilizazio kanpainak garatzea kontsumo arduratsuaz ohartarazteko, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailarekin batera
- Nekazaritzako teknologia berrietan inbertitzea, Zentro Teknologikoen eskutik, elikagaien ekoizpen iraunkorra handitzeko
- Sektore primarioa gartzetzeko neurriak eta ekintzak abian jartzea, etorkizuneko berme gisa, Nekazari Gazteentzako 2020ko Gaztenek Plana inplementatuz eta gazteak arrantza sektorean sartzeko “Itsasoratu” ekimenaren bitartez
- Laguntza integral eta pertsonalizatua pertsona fisiko edo juridiko ekintzaileei, ideiak, ekimenak edo proiektuak martxan jartzeko edo hainbat programaren bidez jarduera ekonomikoak dibertsifikatzeko (Geroa Programa, ONEKIN Programa...)
- Nekazaritza ekologikoa eta bere industria eraldatzailea sustatzea
- Oinarri bioteknologikoa duten produktuak garatu
- Landa eta itsasertz inguruneei azpiegiturak eta zerbitzuak ematea, besteak beste, landa eta itsasertz inguruneen sustapena, garapena eta dibertsifikazio ekonomikoa bultzatuz, eta landa eremu osoan banda zabala ezarriz
- Laguntza neurriak bultzatzea, tartean direla finantza tresnak, ustiategiak eta enpresak abian jartzea errazteko, ekoizpenerako, eraldaketarako eta komertzializaziorako inbertsioak egiteko, eta landa eta itsasertzeko inguruneko nekazaritza jarduera dibertsifikatzeko, besteak beste.

3. OSASUNA ETA ONGIZATEA



Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

Gobernu Programaren Konpromisoa

12. Osasun sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatzea	64
13. Pertsonen erantzukidetasuna sustatzea osasunaren zaintzari dagokionez	66
14. Osasun laguntzako ekitatea zaintzea, genero ikuspegia eta kolektibo hauskorrenak azpimarratuta, eta kalitateko arreta ere zaintzea	67
15. Osasuna sustatzea erkidegoaren ingurunean, jarduera fisikoa eta elikadura osasungarria bultzatuta	69
16. Osasun Publikoa sustatzea erakundeen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako formulak ezarriz, eta koordinazio soziosanitarioa ere bultzatzea	70 eta 76
17. Zaintza aringarriak behar dituztenei eta gaixotasun kronikoak, buru gaixotasunak eta gaixotasun arraroak dituztenei arreta ematea bultzatzea	80 eta 81
18. HIESa eta beste gaixotasun infekzioso batzuk prebenitzea	73
19. Adikzioa prebenitzea eta tratatzea, gazteen artean jarduera gehiago eginez	72
20. Osasun laguntza eta laguntza kirurgikoa ematea herrialde pobretuetatik edo gatazketan sartuta dauden herrialdeetatik datozen adingabeei eta aldi baterako abegi egindakoei	64
21. Osasun alorreko ikerketa eta berrikuntza sustatzea	89

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2020





Sailburuordetzak 3. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- **Dieta osasungarria bultzatzeko neurriak zabaltzea**
- **Elikagaien segurtasun eta higienerako protokolo efizienteak hartzen laguntzea balio kate osoaren bitartez (azpimarratu, baita ere, Nekazaritzako Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Euskal Planaren barruko jarduketak –PVCOCA-)**
- **Osasun kontrolen arauak betetzen direla egiaztatzea eta nekazaritako produktuen kalitateari buruzko arauak bultzatzea**
- **Kanpainak egitea bizi eta elikatze ohitura osasuntsuak sustatzeko, Osasun Sailarekin batera**
- **Elikagaien eta edarien osaera hobetzea I+G+Baren bitartez, besteak beste AZTIren bitartez**
- **Irtenbide osasungarri eta produktu berrien garapena babestea , arreta berezia jarrita haurren obesitatea prebenitzeko eta pertsona helduen eta gaixotasun kronikoak (minbizia, indize gluzemikoa, etab) dituzten pertsonen premiei erantzuteko**
- **Enpresak bultzatzea produktuak aldaketa demografiko eta sozialetara egokitzea, populazio segmentu guztientzako irtenbide komenigarri eta egokiak eskainiz**
- **Pertsonen dieta hobetzen lagundu eta IKTek, OMICAS teknologiek eta elikagaien teknologiak emandako soluzio globalak elkartzen dituzten proiektuak lankidetzan garatzea bultzatzea, erakusketa fasean.**
- **Elikadura osasungarriaren garrantziaz sentsibilizatzeko eta trebatzeko ekintzan bultzatzea.**
- **Iraunkorrakoak, efizienteagoak eta seguruagoak diren ekoizpen sistema berrien garapena sustatzea.**





Sailburuordetzak 3. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Elikaduraren eta osasunaren arloan berrikuntza sustatzea (produktuen berrikuntzarako doitasunezko nutrizioa –dieta pertsonalizaturako soluzioak–; kontsumitzailearen premiei erantzutea, produktu osasungarriak eskainiz eta komeni diren elikagaiak, iraunkortasuna eta plazera garatuz; elikagaien prozesatze eta kontserbazio teknologietan berrikuntza sustatzea...)
- Nekazaritzan fitosanitarioen aplikazioa arrazionalizatzea eta abeltzaintzan antibiotikoen erabilera murriztea, mikrobioen aurkakoekiko erresistentzia kontrolatzeko



4. KALITATEKO HEZIKETA



Gobernu Programaren Konpromisoa

Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

22. Kalitateko eskola inklusiboa, bidezkoa eta berritzailea bultzatzea, bikaintasunerantz jotzen duena eta heziketan sartzeko berdintasuna bermatzen duena	91
23. Oreka, kohesio sozial eta elkarbizitza handiagoa lortzen gure ikastetxeetan	92
24. Eleaniztasuna bultzatzea eskolan	93
25. Heziketak azpiegiturak eraikitzea eta egokitzea	96
26. Irakaskuntzaren modernizazio teknologikoa bultzatzea	97
27. Elkarbizitzaren eta giza eskubideen gaineko heziketa bultzatzea (biolentziarik ez, dibertsitatea eta elkartasuna)	166
28. Bikaintasunezko lanbide heziketa sendotzea, enpresen eskaerei eta pertsonen enplegarritasunari erantzuteko, laugarren industri iraultzaren erronkei ikuspegi berezia emanda	100 eta 102

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Landa Garapeneko Osoa programa 2015-2020
- Euskadiko Elikagaien eta Egurraren Balio Kateko Ekintzailtza Estrategia
- Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integrala






Sailburuordetzak 4. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Iraunkortasunari buruzko prestakuntza ematea (ingurumeneko iraunkortasuna, ekonomikoa eta soziala) kateko agente guztiei (etengabea, zuzendariak, graduak, etab.)
- Giza eskubideen gaineko prestakuntza, besteak beste Sasoikako Lanaren Planaren barruan
- Sektore profesional espezifikoek dituzten premietara egokitutako prestakuntzaren garapena bultzatzea
- Enpresa Txiki eta Ertainetako zuzendarien prestakuntza bultzatzea, arreta berezia eginda tamaina txikieneko enpresei eta berrikuntza ez-teknologikoa lagunduta
- Lanbide Heziketaren eta nekazaritza eskolen eta ostalaritza eta gastronomiako eskolen prestakuntza programen koordinazioa sustatzea, sektorearen premiei erantzuteko
- Goi mailako gastronomiako profesionalentzako prestakuntza bultzatzea sektorean jauzi kualitatiboa eragiteko, BCCren bitartez
- Lanbide heziketako eskolek eta nekazaritza, ostalaritza eta gastronomiako eskolek Unibertsitatean lankidetzan aritzea erraztea, sektorearen premietarako egokiak diren konpetentziak dituzten profil profesionalak lortzeko
- Prestakuntza dualeko ereduak edo antzeko ereduak bultzatzea unibertsitate irakaskuntzan. Prestakuntza duelako programak zentro teknologikoetara eta enpresen I+G departamentuetara zabaltzea



5. GENERO BERDINTASUNA



Gobernu Programaren Konpromisoa

- Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak**
- 29. Balioen aldaketa sustatzea emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko
 - 30. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea lan eremuan, soldatetan dagoen diskriminazioaren aurka eginda eta bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzen lagunduta
 - 31. Gurasotasun positiboa eta erantzunkidetasuna sustatzea
 - 32. Emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerraraztea eta genero indarkeriaren biktimei epaitegietan ematen zaien arreta hobetzea. NBEren Populazioaren Funtzari laguntzea, Indarkeria pairatzen duten Emakume eta Neskentzako Funtsezko Zerbitzuen Programa Bateratuan parte hartzeko (UNFPA-NBE)

145

146


139

147 eta 157

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Landa Garapeneko Osoa programa 2015-2020





Sailburuordetzak 5. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Emakume Nekazarien Estatutua garatzea, beste administrazio eta agente sektorial batzuekin batera
- Berdintasun planak bultzatzea enpresetan, bai eta jazarpen sexualaren edo sexu arrazoiagatik jazarpenaren aurkako protokoloak ere
- 2015-2020 aldirako LGPren barruan emakumeek sustatutako proiektuak positiboki diskriminatzea (“gazteak sartzea”; “nekazaritzako ustategietan inbertsioak egiteko laguntza”; “Produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioetarako laguntzak”; etab.)
- Emakumeek landa eta itsasertzeko ingurunean egiten duten lana bistaratzea.
- Sailburuordetzaren eremuan lan diskriminazioaren aurkako neurriak bultzatzea, Gobernu osoari eragiten dioten politiken baitan
- Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume guztiak ahalduntzea, Gobernuko gainerako Sailekin koordinatuta eta Enplegua eta Gizarte Politikak Sailak gidaritzapean, generoaren araberako lan diskriminazioaren aurkako neurriak bultzatuz.



6. UR GARBIA ETA SANEAMENDUA



Gobernu Programaren Konpromisoa

Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

- 33. Urari buruzko politika egoki bat bultzatzea, haren kalitatea bermatzeko eta alferrikako galeraren, espekulazioaren eta kutsaduraren aurka borrokatzeko
- 34. Uraren hornidura, saneamendu eta arazketarako azpiegitura hidraulikoak garatzea eta gauzatzea, indarrean dagoen plangintzaren arabera. Uraren kanonaren bidez biltzen den diruaren % 5 hornidura eta saneamendurako lankidetzaren proiektuetara zuzentzea, garapen bidean dauden herrialdeetan
- 35. Urari buruzko politika egoki bat bultzatzea, haren kalitatea bermatzeko eta alferrikako galeraren, espekulazioaren eta kutsaduraren aurka borrokatzeko

46

46

46

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Landa Garapeneko Osoa programa 2015-2020





Sailburuordetzak 6. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- LGPan jasotako neurrien bitartez (LEADER programa) edo fondo propioekin (landa guneen garapenerako eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzak) egindako jarduketa publikoak eta pribatua babestea
- Enpresa publiko eta zentro teknologiko batzuen partaidetzarekin uraren erabilera minimizatu eta produktibitatea maximizatzeko dauden doitasunezko nekazaritza teknologietan inbertitzea
- Uraren kudeaketa eraginkorrerako tekniketan prestatzea, URArekin eta beste administrazio batzuekin batera
- Ura aurrezteko eta ura berreskuratzeko teknologiak garatzea, Zentro Teknologikoen eskutik





Gobernu Programaren Konpromisoa

Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

- 36. Gasaren alde egitea, trantsizio energia gisa, energia berriztagarriak neurri handiagoan inplementatzeko bidean; eta nazioarteko konexio energetikoa sostengatzea gas eta elektrizitatearen horniduran
- 37. Teknologiaren eta enpresen garapena sostengatzea energia iturri berriztagarri eta iraunkorren erabilera sustatzeko
- 38. Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko proiektuak bultzatzea
- 39. Gasolia garraiotik gero eta neurri handiagoan ezabatzea, garraioaren gasifikazioa (lurrekoa eta itsasokoa) eta ibilgailu elektrikoaren erabilera bultzatuz

19

19

19

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Landa Garapeneko Osoa programa 2015-2020





Sailburuordetzak 7. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Energia berriztagarrien erabilera sustatzea, bereziki Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak bultzatutako biomasa proiektua
- Nekazaritzako elikagaien kateko prozesu guztietan energia aurrezten lagunduko duten inbertsioak bultzatzea, eta zehazki LEHIATU BERRIA programaren bitartez
- Efizientzia energetikoko jardunbideak bultzatzea



8. GIZALEGEZKO LANA ETA HAZKUNTZA EKONOMIKOA



Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

Gobernu Programaren Konpromisoa

40. Kalitatezko enplegu inklusiboa sustatzea	2
41. Lanerako kualifikazio eta birziklapena bultzatzea, enpresekin, unibertsitateekin eta lanbide heziketako ikastetxeekin lankidetzan estuan arituz, prestakuntza duala eta enpresa eta erakundetako praktikak bultzatuz	4
42. Gazteen laneratzea bultzatzea eta ekintzaitzaren alde egitea	5 eta 15
43. Gizarte elkarrizketa eta langileek euren enpresetan parte hartzea sustatzea, bai eta langile autonomoen arteko elkarlana ere	6
44. Enpresen Gizarte Erantzukizuna sustatzea	7
45. Gizarte ekonomiako enpresak bultzatzea	8
46. Laneko osasuna, segurtasuna eta berdintasuna bultzatzea	10

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Landa Garapenerako Osoa programa 2015-2020
- Euskadiko Elikagaien eta Egurraren Balio Kateko Ekintzaitza Estrategia
- Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2020
- Euskadiko Arrantza eta Akuikulturako Plana 2020
- Euskal Elikagaien Industriaren Lehiakortasun Plana (EEILP)





Sailburuordetzak 8. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Oinarrizko ekintzailtza (normalean autoenpleguko proiektuak edo oso berritzaileak ez direnak) eta ekintzailtza aurreratua (proiektu berritzaileak edota oinarri teknologikoa dutenak, eta ahalmena ere badutenak) bere barruan hartzen dituen Ekintzaile Programa bultzatzea
- Ekintzailtzari eta berrikuntzari lotutako informazio atari bakarra garatzea (ekintzaileak sartzeko, informatzeko eta orientatzeko on line kanala, Sailburuordetzak bultzatuta edo harekin eta dauden laguntza tresnekin lotura duten programa guztien gaineko informazio bateratua eta koordinatua ematea bermatzeko)
- Lan baldintza egokiak eta duinak sustatzea pertsona guztientzat Laster onartuko da PREBEN II.a, Euskadiko Sektore Primarioaren Balio Katerako 2025eko Lan Arriskuen Prebentzioko Plan Sektoriala
- Tokiko ekonomia bultzatzea, tokiko enpresak lagunduz, besteak beste LEADER programaren bitartez eta landa guneen garapenerako eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzen deialdien bitartez.
- Gazteen kontratazioa laguntzea, GAZTENEK eta ITSASORATU programen bitartez
- Politika justuak ezartzea hornitzaileen hautaketarako, kontratazio publiko guztietan
- Beken programak edo praktiketako prestakuntzarakok argitaratzea
- Kontratazioa laguntzea LEADER programaren bitartez eta landa guneen garapenerako eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzen deialdien bitartez.
- “Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katerako 2019-2025 aldiko Laneko Segurtasun eta Osasuneko Estrategia Sektoriala” garatzea
- Prestakuntza dualeko ereduak edo antzeko ereduak bultzatzea unibertsitate irakaskuntzan. Prestakuntza duelako programak zentro teknologikoetara eta enpresen I+G departamentuetara zabaltzea





Gobernu Programaren Konpromisoa

Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

47. Garraio iraunkor multimodala sustatzea, arreta berezia zuzenduz trenbide garraioari (abiadura handikoa, aldirikoa eta tranbia) eta plataforma logistikoei	37 eta 38
48. Berrikuntzaren, fabrikazio adimenduna gidatzearen eta zerbitzu aurreratuak industrian txertatzearen alde egitea	12
49. ETEak eta zailtasunak dituzten enpresen birmoldaketa sostengatzea	13
50. Proiektu industrial estrategikoak sustatzea	14
51. Ikerkuntza, berrikuntza eta teknologiaren alde egitea, arreta berezia zuzenduz fabrikazio aurreratuari, energiari eta biozientzia-osasunari	16
52. Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa kudeaketa aurreratuak garatzea	17
53. Informazioaren eta ezagutzaren gizartea sustatzea, teknologien aukerak aprobetxatzeko lehiakortasuna –zibersegurtasuna barne sartuta-, ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko	18

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Landa Garapenerako Osoa programa 2015-2020
- Euskadiko Elikagaien eta Egurraren Balio Kateko Ekintzailtza Estrategia
- Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2020
- Euskal Elikagaien Industriaren Lehiakortasun Plana (EEILP)





Sailburuordetzak 9. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Enpresei laguntzeko finantzaketa tresnak bultzatzea (Sendotu Programa, Lehiatu Berria Programa, Hazilur, I+G+Bri laguntzeko beken programak, etab.)
- Berrikuntza eta teknologia iraunkorra bultzatzea nekazaritzako elikagaien sektorean. Azpimarratzea Zentro Teknologikoen (AZTI edo NEIKER) eremu honetan garatzen duten lana, batetik, eta enpresa publikoek eta beste administrazio batzuek Europako hainbat programatan (POCTEFA, LIFE, etab.) duten partaidetza, bestetik
- Elikagaien sektoreko enpresen artean aliantzak bultzatuz. Azpimarratzekoak dira Elikaduraren Klusterraren eremuko jarduketak.
- Balio katearen zati diren enpresak babeste, digitalizazio prozesuan prestakuntza eta laguntza eskainita, esaterako: digitalizazioa eta Big Dataren kudeaketa konbinatuz eta horren bitartez bezeroarengana hurbiltzen lagunduz, kontsumitzaileei portaerei eta premiei aurrea hartu ahal izateko; proiektu erakusleak bultzatuz, eten digitalaren aurka egiteko ; erakusketa proiektuetan teknologia berrien erabilera bultzatuz, hala nola blockhainena, trazabilitatea bermatzeko; neuromarketinari eta portaerei buruzko azterketak egitea lagunduz, horietatik segmentu bakoitzera egokitutako zerbitzuak garatzeko, elikagaien erosketen eta kontsumoen laborategiak sortzen lagunduta; elikadurari lotutako joeren gaineko azterketak egiten lagunduz
- Iraunkorrakoak, efizienteagoak eta seguruagoak diren ekoizpen sistema berrien garapena bultzatzea, lehiakorrakoak izateko, IKTak sartuz, ekoizpen eta merkaturatze prozesuen efizientzia hobetzeko, teknologia berriak sartuz, etab.
- Zailtasunak dituzten enpresen ondoan egotea, modu indibidualean laguntzen
- ETE-etako zuzendarien prestakuntza eta berrikuntza ez-teknologikoaren babesa sustatzea
- Talentua garatzearen, erakartzearen eta atxikitzearen alde egitea, lehiarako faktorea den heinean
- Berrikuntzako inbertsioetan laguntzea eta sektorearen lehiakortasuna areagotzea

10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA



Gobernu Programaren Konpromisoa

Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

54. Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna bultzatzea	135
55. Pertsonak zaintzeko zerbitzu publikoa optimizatzea, osasun zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen arteko lotura estua sendotuz	134
56. Hirugarren Sektore Soziala sostengatzea	138
57. Boluntarioen lana bultzatzea	137
58. Immigrazioaren aldeko eta arrazakeria eta xenofobiaren kontrako Gizarte Ituna bultzatzea	140
59. Dibertsitate eta elkartasunaren kudeaketa positiboa, bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean sortzen diren erronka berrien aurrean (immigrazioa, pertsona errefuxiatuak, erlijio aniztasuna...)	165
60. Bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta	166

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Landa Garapeneko Osoa programa 2015-2020
- Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integrala





Sailburuordetzak 10. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- **1.GIHrako azaldutakoekin oso lotura handia duten ekintzen bitartez eta Sasoikako Lanaren Programaren barruan.**
- **Genero desberdintasunen eta genero indarkeriaren identifikazioa lantzea Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integralaren barruan**
- **Gizonen eta Emakumeen arteko berdintasuna hobetzea, besteak beste Emakume Nekazarien Estatutua garatuz.**
- **Garapenerako eta ekintza sozialerako lankidetzak proiektuak egitea nazioartean, eta Lehendakartzako Kanpo Ekintzarekin batera, hala nola FOCAD proiektua Bolivian**



11. HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK



Gobernu Programaren Konpromisoa

Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

61. Lurralde estrategia iraunkor, sozial, adimendun, orekatu eta parte-hartzailea sustatzea	47
62. Hiriko zaharberritze, biziberritze eta berriztapena sustatzea	48
63. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea	142
64. Garraio publiko iraunkor eta intermodala bultzatzea	33 eta 34
65. Kultura eta kultur ondarea dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia bat bultzatzea	108 eta 113
66. Euskararen erabilera sustatzea	116 eta 117
67. Prebentzio sistema eta larrialdien aurreko alarma sistema indartzea, bai eta herritarren autobabesa ere	153

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Landa Garapeneko Osoa programa 2015-2020





Sailburuordetzak 11. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- **Jarduketa publiko eta pribatuak laguntzea LEADER, EREIN eta ITSASPEN programen esparruan, bai eta landa eta itsasertz inguruneen garapenerako eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzen deialdiak ere**
- **Tokiko kulturaren eta balioen errespetua sustatzea eta gune naturalak babestea, hainbat programa eta ekintzaren bitartez**
- **Gutxi kutsatzen duten nekazaritzako makina efizienteetarako inbertsioak babestea, LGPren barruan eta hainbat administrazioen esku-hartzearekin.**
- **Ingurumenean inpaktu txikia duten material iraunkorren erabilera sustatzea eraikuntzan. Azpimarratzekoak dira zentzu horretan egurraren sektorean eta hainbat neurriekin lagunduta egindako jarduketak.**



12. EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK



Gobernu Programaren Konpromisoa

Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

- | | |
|---|----|
| 68. Ekonomia zirkularraren alde egitea | 42 |
| 69. Ingurumen aldetik eredugarria den administrazio publikoaren konfigurazioan aurrera egitea | 45 |
| 70. Informazio azkar eta eraginkorra eskaintzea kontsumitzaileak konprometituagoak eta arduratsuagoak izan daitezen | 32 |
| 71. Bikaintasuna eta iraunkortasuna bultzatzea euskal turismo jardueran | 28 |

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Landa Garapeneko Osoa programa 2015-2020
- Euskadiko Elikagaien eta Egurraren Balio Kateko Ekintzailera Estrategia
- Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2020
- Euskadiko Arrantza eta Akuikulturako Plana 2020





Sailburuordetzak 12. GIHri lotuta garatutako ekintzak (1/2)

- **Ekonomia zirkularreko irizpideak txertatzea erakunde eta enpresetan**
- **Elikagaiak alferrik galtzea murrizteko neurriak bultzatzea. Elikak Mahai bat sortu du gai horri heltzeko, hainbat administrazio eta eragileren partaidetzarekin.**
- **Material biodegradagarrien eta birziklagarrien erabilera bultzatzea, Zentro Teknologikoen eta enpresen arteko transferentzia teknologikoaren bitartez**
- **Abeltzaintzaren eta basogintzaren sektorerako transferentzia bultzatzea, berebiziko arreta eskainiz ingurumen iraunkortasunaren arloari, gure Zentro Teknologikoetatik**
- **Ekoizpen ekologikoa bultzatzea, FOPEn bitartez**
- **Animalien ongizate ziurtapen-prozesuak garatu eta sustatu**
- **Kontsumo arduratsua sustatzea, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin batera.**
- **NIREA ekimena bultzatzea, landa eta itsasertzeko eremuen eta gune naturalaren balio ekarpena hiri eremura zabaltzeko eta tokiko produktuen nabarmentasuna eta kontsumoa laguntzeko**
- **Iraunkorrakoak, efizienteagoak eta seguruagoak diren ekoizpen sistema berrien garapena bultzatzea, lehiakorrakoak izateko, IKTak sartuz, ekoizpen eta merkaturatze prozesuen efizientzia hobetzeko, teknologia berriak sartuz, etab.**
- **Elikagaiak alferrik galtzea murriztea, sentsibilizazio kanpainen bitartez, aurrezpen eta ekoefizientziako gidaren bitartez HORECA kanalerako eta soluzio eta praktika onen garapenari buruzko prestakuntzaren bitartez**
- **Elikagaiak kontserbatzeko teknologiak eta ekipa, prozesu edo sistema berriak erabiltzen hastea, elikagaien merkaturatze duten batez besteko bizitza luzatu ahal izateko**
- **Balio kate osoko elikagaien iraunkortasuna ebaluatzeko eta komunikatzeko sistema homogeneo berriak ezartzea**





Sailburuordetzak 12. GIHri lotuta garatutako ekintzak (2/2)

- Munduko Landa Foroarekin modu aktiboan lankidetzan aritzea, familia nekazaritza eta landa garapen iraunkorra sustatzen duen sarea baita
- Environmental Product sistema ezartzea Euskadin ekoiztako eta eraldatutako produktuetan, sistemak EBren babesu baitu
- Elikagaien ekodiseinuko metodologia enpresetara transferitzea eta bertan erabiltzea, elikagaien galerak eta jarduerak ingurumenean duen inpaktua murrizteko
- Ardoaren eta txakolinaren garapenari lotutako enoturismo iraunkorra bultzatzea eta garatzea
- Kontsumitzailearen portaera ezagutzea (lehiarako adimena, zaintza teknologikoa–joerak identifikatuz eta berrikuntzan aplikatuz–, lankidetzan oinarritutako berrikuntza, neuromarketina, analisi sensoriala...) eta metodologietan eta teknologietan berritzea, enpresa estrategiak zein enpresen marketin, zerbitzu eta produktuak berritzeko prozesuak ezarri ahal izateko



13. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA



Gobernu Programaren Konpromisoa

Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

72. Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatzea	41
73. Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa sustatzea	44
74. Energia berriztagarrien erabilera bultzatzea	41
75. Eraikuntza jasangarria, ekodiseinuaren sustapena eta garraio publikoaren erabilera bultzatzea	41
76. Klima aldaketari egokitzeko ikuspegia integratzea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onesteko prozesuan eta lurralde eta hiri plangintzako tresnetan	41

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Landa Garapenerako Osoa programa 2015-2020
- Euskadiko Elikagaien eta Egurraren Balio Kateko Ekintzailatza Estrategia
- 1994-2030 epealdirako Euskadiko Basogintza Plana





Sailburuordetzak 13. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Ingurumeneko aztarnaren kalkulua eta murrizketa bultzatzea (azpimarratu behar da bai Neiker bai Hazi lanean ari direla PEF ziurtagiriaren gaiaren gainean –produktuaren ingurumeneko aztarna-)
- Erregai fosilen erabilera murrizteko inbertsioak bultzatzea, LGPko neurrien bitartea eta hainbat administrazioak kudeatuta
- Energia berriztagarrien erabilera sustatzea, bereziki Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak bultzatutako biomasa proiektua
- Ekonomia zirkularreko irizpideak txertatzea erakunde eta enpresetan
- Egurrezko eraikuntzak eta azpiegiturak bultzatzea
- Elikagaiak alferrik galtzea murriztea, sentsibilizazio kanpainen bitartez, aurrezpen eta ekoefizientziako giden bitartez HORECA kanalerako eta soluzio eta praktika onen garapenari buruzko prestakuntzaren bitartez
- Tokiko administrazioak ebaluazio metodologiez hornitzea, naturan oinarritutako soluzioak bilatzeko eta horiek eraginkorrak izan daitezen tokiko klima aldaketara egokitzeko neurri gisa; besteak beste, “Soluzio Naturalen diseinua eta eraginkortasuna ebaluatzeko gida, klima aldaketara egokitzeko eta hura arintzeko neurri gisa” izeneko gida argitaratuz
- Bioekonomia zirkularra bultzatzea (nekazaritzako elikagaien hondakinetatik lortutako biofindeak, hiltegieta sobera geratzen den kolagenoarekin egindako bioplastikoak, konposta egiteko sistema berriak, balio handiko ongarriak lortzeko baliagarriak...)



14. ITSASPEKO BIZITZA



Gobernu Programaren Konpromisoa

Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

77. Arrantza iraunkor eta lehiakorra sustatzea	26
78. Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea arrantza azpisektorean	26
79. Lehorretik itsasora doazen isurketen kudeaketa iraunkorra	46
80. Kostaldea babestea lurzoruaren erabilerak arautuz	47

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Euskadiko Arrantza eta Akuikulturako Plana 2020
- Euskadiko Elikagaien eta Egurraren Balio Kateko Ekintzailletza Estrategia





Sailburuordetzak 14. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Itsasoko ekosistemen eta biodibertsitatearen babesa bultzatzea, AZTIren eskutik
- Gehiegizko arrantzaren eta legez kanpoko arrantzaren prebentzioa sustatzea
- Arrantza iraunkorrean lagunduko duten teknologia berritzaileetan inbertitzen laguntzea
- Kontzientziazio kanpainak bultzatzea arraina modu arduratsuan kontsumitzeak duen garrantziaren gainean
- Klima aldaketak ozeanoan eta kostaldean eragiten dituen inpaktuak eta kalteberatasuna ebaluatzea
- Ezaugarritze ozeanografikoa eta itsasoko ekosistemen funtzionamenduaren azterketa, ingurunea eta haren baliabideak hobeto kudeatu ahal izateko
- Itsas prozesuak denbora errealean monitorizatzeko sistemak ezartzea, itsasoak etorkizunean izango duen portaera aurreikusteko baliagarriak diren aplikazioekin batera (kostaldeko arriskuen iragarpena, arrantzarekin lotutako iragarpena, itsasertza monitorizatzeko zerbitzuak...)
- Kostaldeen eta itsas ingurunearen ingurumen kudeaketa (inpaktuaren eta ingurumen kalitatearen ebaluazioa, estuario eta kosta inguruetako egoera ekologikoa zein ingurumen egoera zehaztea, baliabide naturalen kudeaketa iraunkorrean aurrerapausoak ematea, kostaldeko jardueraren kudeaketarako plan integralak gauzatzeko aholkularitza...)
- Arrantzaren kudeaketa iraunkorra sustatzea (arrantzaren ebaluazio eta kudeaketa integrala; arrantza teknologiak txertatzea, baliabideen ustiapen iraunkorra egiteko; akuikulturaren garapen iraunkorra...)

15. LURREKO EKOSISTEMEN BIZITZA



Gobernu Programaren Konpromisoa

Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

81. Lehorreko ekosistemen erabilera iraunkorra sustatzea lurzoruaren erabilerak arautuz	47
82. Ingurumen hezkuntzako politikak indartzea, herritarrek ingurumenaren babes eta kontserbazioan duten erantzunkidetasunean aurrera eginez	46
83. Biodibertsitatea babestea	46
84. Europako gune babestuen Natura 2000 Sarea osatzen duten espazioen antolamendu planak garatzea	46
85. Nekazaritza ekologikoa sustatzea	26
86. Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea arrantza azpisektorean	26

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala
- Landa Garapeneko Osoa programa 2015-2020
- 1994-2030 epealdirako Euskadiko Basogintza Plana
- Nekazaritza Ekologikoko Plana (FOPE)





Sailburuordetzak 15. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzea bultzatzea eta baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra bermatzera bideratutako politikak ezartzea eta enpresa jardunbideak bultzatzea
- Europako gune babestuen Natura 2000 Sarea osatzen duten espazioen antolamendu planak garatzea
- Nekazaritza ekologikoa sustatzea, FOPEn bitartez
- Hondamendi naturalak prebenitzeko neurriak babestea LGPren barruan, adibidez, basogintzaren sektorean
- Ekoizpen eredu iraunkorrak eta biodibertsitatea zaintzekoak babestea, NPBren barruan
- Lehengai iraunkorren erabilera sustatzea
- Nekazaritza Arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokoloa lantzea(AAEP), Foru Aldundiekin, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailarekin eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailarekin batera
- Nekazaritza ekosistemen eta ekosistema naturalen kudeaketa iraunkorra sustatzea; esaterako, teknozoruak erabiliz, harrobiak birgaitzeko, edo metodologia berriak garatuz, lurzoru kutsatuak lehengoratzeko
- Basoen narriaduraren kudeaketarako planak garatzea: higaduragatik, trinkaduragatik, material organikoa galtzeagatik eta biodibertsitatea galtzeagatik
- Basogintzaren kudeaketa iraunkorra sustatzea, Europako hainbat ekimenekin lankidetzan
- Kontrolerako estrategia iraunkorrak garatzea, basoko gaixotasunei aurre egiteko (*Dothistroma septosporum*, *Lecanosticta acicola* eta *Dothistroma pini*), nazioartean ospe handia duten Unibertsitate eta Institutuekin lankidetzan





Gobernu Programaren Konpromisoa

Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak

87. Bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta	166
88. Administrazio Publiko ireki, garden eta eraginkorra bultzatzea	60
89. Kargu publikoen osotasuna segurtatzea	57
90. Dibertsitate kulturalak dituen balio positiboez eta arrazakeria zein xenofobiaren prebentzioaz sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea	140
91. Segurtasun eta polizia zerbitzu publiko eraginkor eta hurbila sustatzea	148
92. Sistema judicial moderno, azkar eta eraginkorraren alde egitea, eta adingabeentzako arreta judiciala garatzea	155 eta 158
93. Gatazkak konpontzeko sistema alternatiboak bultzatzea	159
94. Indarkeriaren amaiera ordenatua sustatzea, ETAren armagabetze eta desegitea barne sartuta	161
95. Biktima guztiei zuzendutako egia, justizia, erreparazio eta elkartasun politikak ezartzea	162
96. Laguntza ematea pertsona desagertuen ingurukoei	160

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integrala





Sailburuordetzak 16. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Giza eskubideen alorrean dauden arriskuak identifikatzea eta arintzea (Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integralaren barruan jasotako jarduketak)



17. HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK



Gobernu Programaren Konpromisoa

- Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren jomugak**
- 97. Basque Country nazioartekotze-estrategia globala garatzea, lankidetzaz publiko-pribatuaren bidez
 - 98. Garapenerako lankidetzaz politika sendotzea eta lankidetzarako tresnak estrategia espezifikoaren bidez eguneratzea
 - 99. Garapenerako lankidetzaz politika publikoaren koherentzia eta instituzioen arteko koordinazioa bultzatzea
 - 100. Lankidetzaz politika publikoari lotutako ekimen estrategikoak abiatzeko aliantzen garapena bultzatzea estatuan, Europan eta nazioartean

21

168 eta 169

171

170

Sailburuordetzaren plangintza tresnak

- Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integrala





Sailburuordetzak 17. GIHri lotuta garatutako ekintzak

- Garapenerako eta ekintza sozialerako lankidetzak proiektuak egitea nazioartean, eta Lehendakarietzako Kanpo Ekintzarekin batera, hala nola FOCAD proiektua Bolivian
- Aliantzak bultzatzea iraunkortasuneko proiektuak garatzeko, bai estatuan, bai nazioartean
- Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integralaren barruan jasotako jarduketak inplementatzen laguntzea, esaterako jatorrian kontratatzearena





Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak bultzatutako ekintzak

